



# Mobilizazioak eta elkartasun ekimenak

Mobilizazioari eta Alfredo Cospito-ri elkartasuna adierazi dioten presoak:  
 Francisco Solar (Txile) – Nicola de Maria (Brigate Rosse-ko preso politiko komunista) – Toby Shone (Erresuma Batua) – Davide Delgou (sardiniar anarkista).  
 Greziako hainbat preso anarkista: “Borroka Iraultzailea” taldeko Nikos Maziotis eta Pola Roupa, “Ekintza Anarkista” taldeko Thanos Chatziangelou, Gianis Michailidis...



**Elkarretaratzeak espetheen aurrean:**  
 Alfredo preso dagoen Sassari-ko Bancali espetxean (Sardinian). Terni, Spoleto, Pisa, Milano, Torino, Genova.

**Elkarretaratzeak eta manifestazioak:**  
 Italian: Erroma, Bologna, Milano, Torino, Carrara, Genova, Spoleto.  
 Sardinia: Cagliari, Sassari eta Nuoro.  
 Atenas eta Thesaloniki (Grezia), Bruselas (Belgika), Berlin eta Leipzig (Alemania), Madril (Espainia), Barcelona (Catalunya),

**Hitzaldiak, eztabaidak, asanbladak etabar:**  
 Madril eta Jerez (Espainia), Napoli, Torino, Nuoro, Spoleto, Carrara, Firenze, Pisa, Rovereto, Marseille, Grenoble eta Toulouse (Frantzia), Thesaloniki (Grezia), Manresa (Catalunya), Bogota (Colombia) eta Santiago (Chile).

**Sabotaiak eta erasoak:** Italiako hainbat hiritan (Erroma, Trento, Torino, Genova), Atenas-en (Grezia), Leipzig-en eta Berlin-en (Alemania).

Azaroan zehar “La parola agli avvocatti” izenean Italia osoko 70 abokatu baino gehiagok anarkisten aurka epaitegietan eta Barne Ministeriotik hartzen ari diren errepresio neurrien salaketa adierazpen bat sinatu dute.



**INTERNET**

Anarkisten aurkako errepresioaren, 41bis-aren eta haien aurkako borrokaren inguruko webguneak:  
<https://t.me/N041bis>    <https://facebook.com/ladifesadelnemico>  
<https://lucharcontrael41bis.noblogs.org> (gaztelaniaz/en castellano)

Gatazka eta borroka sozialen inguruko webgune anarkistak:  
<https://lanemesi.noblogs.org>    <https://ilrovescio.info>  
<https://federaciónanarquista.net>



# 41bis + ERGASTOLO = TORTURA

**anarkistak errepresioaren eta domeinuaren aurka borrokan !!!**


Euskal Herrian. 2022ko azaroa amaieran - borrokan@canaglie.org

## presoekiko elkartasuna



### EFEKTOS DEL AYUNO

La desnutrición afecta a todos los sistemas del organismo



- Aparato respiratorio**  
 Atrofia de los músculos respiratorios, lo que se traduce en un descenso de la capacidad vital y de las presiones inspiración-espíración.
- Aparato cardiovascular**  
 La masa miocárdica disminuye. Hay una reducción del gasto cardíaco, del volumen sistólico y de la capacidad máxima de trabajo.
- Tubo digestivo**  
 Pérdida de altura o ausencia de las vellosidades intestinales, por lo que hay una mala absorción de glúcidos y vitaminas.
- Funciones endocrinas**  
 Hay un descenso de los niveles de testosterona y estrógeno circulantes y menos capacidad reproductiva. En las mujeres se produce amenorrea (falta de menstruación).
- Función inmunológica**  
 Disminuyen las defensas y aumenta el riesgo de infecciones.

LA PROVINCIA / DLP

Urriaren 20ean Alfredo Cospito anarkistak Italian gose greba mugagabe bat hasi zuen eta ekimen hau nazioarteko borroka bat bihurtu da.



**GOSE GREBAN DAUDEN PRESOAK**  
 Urriaren 20tik, Bancali-ko (Sardinia) espetxean – Alfredo Cospito  
 Urriaren 25etik, Terni-ko espetxean – Juan Sorroche  
 Urriaren 27tik, Villepin-eko espetxean (Frantzia) – Ivan Alocco  
 Azaroaren 7tik, Rebibbia-ko espetxean – ANNA Beniamino  
 Azaroaren 9tik, Parc espetxean (Gales) – Toby Shone



# Nor da Alfredo Cospito?

Alfredo Cospito (Pescara, 1967). Torino-ko mugimendu anarkistan oso ezaguna, 80 hamarkadatik hainbat borroketan parte hartu izan du, insumisoa izanagatik preso egon zen eta 1996ean ikertua eta auziperatua izan zen.

2012ko maiatzaren 7an Genovan, Nicola Gai kidearekin batera italiar industria nuklear eta militarren buruetako bati hanketan tiro egin zion eta ekintza FAren (Federazione Anarchica Informale - Federakunde Anarkista Informala) izenean haien gain hartu zuten. Gutxira Alfredo, Nicola eta Anna Beniamino kideak atxilotuak izan ziren. Ekintza honengatik Alfredok 11 urtetako zigorra jaso zuen.

Espetxean Alfredok mugimendu anarkistaren eztabaidetan eta ekimenetan parte hartzen jarraitu du nazioarteko mugimenduaren anarkista iraultzailearen erreferenteetako bat bilakatuz. Horren ondorioz italiar polizia indarrek FAk burututako ekintza askoren bultzatzaile gisa hura auziperatzen saiatu izan dira.

2016ean garatutako "Scripta Manent" polizia operazioaren barnean, hainbat idatzi oinarri hartuta, Alfredo Cospito eta Ana Beniamino FAren ekintzen bultzatzaileak izatea leporatu zieten eta hurrenez hurren 20 urte eta 16 urte-tako espetxe zigorrak ezarri zizkieten.

2022ko maiatza hasieran Barne Ministroak Alfredo 41bis erregimenean sartzea erabaki zuen eta Sardiniaiko Bancali espetxera lekualdatu zuten.

2022ko utzailean aldiz Erroman dagoen Kasazio Gorte Gorenak (Italian dagoen apelazio/helegite auzitegi gorena) "Scripta Manent" auziaren barnean Alfredori eta Annari leporatutako eraso baten sailkapena aldatzea agindu dio Torinoko epaitegiari<sup>2</sup>. Zehazki aipatu eraso "strage politica" edo "sarraski politikoa" (italiar kode penaleko 285 artikulua) bezela sailkatzeko agindu du; "ergastolo ostativo" edo biziarteko espetxe zigorra suposatzen duen delitua.




**Stato e capitale** schiacciano chiunque  
osi combattere

Federazione Anarchica Informale (Federakunde Anarkista Informala), Italian 2003tik aurrera lehegailuekin eta suarekin erasoak burutzen hasi zen talde autonomo ezberdinen koordinakunde bat da, laister mundu osora zabaldu zena. Taldeak ez dira aurrez aurre biltzen ez koordinatzen eztabaiden eta idatzien bidez baizik. 22006eko ekainean Fossanoko Carabinieren eskolan bi lehegailu jarri zituzten, kalte materialak soilik eraginez. Epaileek inolako frogarik gabe Alfredori eta Annari eraso honen sustatzaileak izatea egotzi zien.

# 41 bis


## ESPETXE ERREGIMEN BEREZIA



41 bis espetxe erregimena. "Carcere duro" (espetxe gogorra) bezela ere ezaguna da. 1975ean prestatzen hasia 1986 urtelo "Gozzini Legea" delakoarekin Espetxe Administrazioarako Legearen 41bis artikulua bidez ezarri zen eta gerora garatzen joan zen. Hasieran "Berenaren urteetan" ezker muturreko talde armatuetako preso politikoak isolatzeko eta makurtzeko sortu zuten, gerora mafiako kideei ere zabaldu bazen ere.

Presoak erregimen honetan sartzea eta harekin lotutako erabakiak Barne Ministerioak zuzenean hartzen ditu. Nahiz eta teoriar erregimen honetan sailkapena 4 hilabeteko berrikustendean, 41bis-etik irteteko bide bakarra "damutzea" eta poliziari zein justiziar laguntzea da. Brigada Gorriak Berrietako 3 kidek 17 urtetik gora daramatzate 41bis-ean sartuta eta hoietako kide bat 2006ean bere buruaz beste egin zuen.

Nazioarteko eta Europar Batasuneko erakundeek, epaitegiek zein elkarteek hainbat kritika eta salaketa egin arren italiar gobernuak indarrean mantentzen dute.



-Presoek abokatuekin eta senideekin bakarrik harremana izan dezakete.

-Senideekin hilabetean behin ordubeteko bisita bakarra dute: kristalen bitartez eta beti ere bideoz eta audioz grabatuta izaten dira. Bisitara joateko aukerarik ez izatekotan 10 minututako telefono deia egin dezakete, baina deia komisaldegi edo espetxe bateko bulegotik egin behar dute eta grabatua da.

-Egunean ordu betez patiora atera daitezke eta moduloan beste ordu betez sozializatu Barne ministroak aukeratutako beste 2-4 presoekin.

-Ezin dute inolako hezkuntza, aisialdi edo formakuntza programetan edo ekintzetan parte hartu.

## "ERGASTOLO OSTATIVO"

Bizi arteko zigorraren aldaera honetan presoak ezin du hobekuntzarik ez baimenik ez neurri alternatiborik jaso, ez badio justiziar laguntzen eta ez bada "damutua" bihurtzen.

